



LEIOA AYUNTAMIENTO
ELIZATEKO DE LA ANTEIGLESIA
UDALA DE LEIOA

BIZKAIA

UDALAREN OSOKO BILKURA **2008ko maiatzaren 19ko aparteko bilera**

BERTARATU DIRENAK:

ALKATE-UDALBURUA

EAJ-PNV.- ENEKO ARRUEBARRENA ELIZONDO jn.

ZINEGOTZIAK

EAJ-PNV.- JESUS BILBAO CUIEL jn.
EAJ-PNV.- AINARA URBIETA BERGARA and.
EAJ-PNV.- BEATRIZ RESA BARDECI and.
EAJ-PNV.- IÑAKI GOIKOETXEA GORDO jn.
EAJ-PNV.- M^a CARMEN URBIETA GONZALEZ and.
EAJ-PNV.- JON LOIZAGA CAYERO jn.
EAJ-PNV.- JON PELI LAZKANO ALZAGA jn.
EAJ-PNV.- JUAN CARLOS IBARRA ARETXABALETA jn.
EAJ-PNV.- AINARA GUZMÁN URRUTIA and.
PSE-EE.- ELSA LOPEZ DE TORRE CAMPO and.
PSE-EE.- LUIS MARIA PEREZ PEREZ jn.
PSE-EE.- PILAR GRADOS GARCIA and.
PSE-EE.- J. ALFONSO LOPEZ AREVALILLO jn.
PSE-EE.- NEKANE JIMÉNEZ FERNANDEZ and.
PSE-EE.- JUAN CARLOS MARTINEZ LLAMAZARES jn.
PP.- XABIER OLABARRIETA ARNAIZ jn.
PP.- FERNANDO PINTO PALACIOS jn.
EB-B.- DANIEL HERRERA TORRECILLA jn.
EB-B.- ISABEL GARCÍA GARCÍA and.

EZ DA BERTARATU:

PP.- ARTURO ALDECOA RUIZ jn.

EUSKARA ITZULTZAILEA

IDOIA NOBLE and.

KONTU-HARTZAILEA

EIDER SARRIÁ GUTIERREZ and.

BEHIN-BEHINEKO IDAZKARIA

JAVIER BOLINAGA LEKUE jn.

Leioako udaletxean, bi mila eta zortziko maiatzaren hemeretzi arratsaldeko zazpiak direla, elizate honetako udalaren osoko bilkura bildu da aparteko bilera egiteko. **Alkate-udalburua, Eneko Arruebarrena Elizondo jauna** izan da bileraren burua eta **behin-behineko idazkariak, Javier Bolinaga Lekue jaunak**, lagundu dio. Haiekin batera, orriaren ertzean agertzen diren zinegotziek parte hartu dute bileran eta egintza zein eskubidez Udalbatza osatzen duten kideen legezko gehiengoa osatzen dute. Alkate-udalburu jaunak aurretik egin die ohiko bileran parte hartzeko deia, guztia Toki Araubidearen oinarriak arautu dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 46.2.b) artikuluan ezarritakoa, apirilaren 18ko 781/1986 Legegintzazko Errege Dekretuaren 48.2 artikuluan azaldutakoa eta azaroaren 28ko 781/1986 Errege Dekretuak onetsi duen Tokiko Udalbatzen Antolakuntza, Funtzionamendu eta Araubide Juridikoari buruzko araudiaren 78.2 eta 80. artikuluetan xedatutakoa oinarritzat hartuta.

Adierazitako orduan eta lehenengo deialdian, Udalburutzak ekitaldia irekitzat jo du; jarraian, aparteko bilera honetako eguneko aztergaien zerrendan agertzen diren gaiak aztertu dituzte:

1.- UDAL SOZIJETATE PUBLIKOA, PINOSOLON KIROLDEGIA ERAIKI ETA ONDOREN USTIATZEKO, ETA ESTATUTUEN PROIEKTUA: Ogasun, Ondare eta Kontuen Informazio Batzorde Bereziaren 2008ko maiatzaren 13ko 67. zenbakidun irizpenaren berri eman zaio Udalaren osoko bilkurari, osoko bilkurak berrets dezan. Hona hemen irizpenak dioena:

Udalaren osoko bilkurak 2008ko otsailaren 28an hartutako erabakiaren bidez, Pinosolo kiroldegia eraikitze eta ondoren kudeatzeko udal merkataritza-sozietatea



LEIOA AYUNTAMIENTO
ELIZATEKO DE LA ANTEIGLESIA
UDALA DE LEIOA

BIZKAIA

eratzeari buruzko eta dagokion memoria idazteko azterketa-batzordea izendatzeari buruzko espedientea hasieran onestea erabaki zen.

Horren ondorioz, Zubizarreta Consulting S.L. enpresak egindako jarduera ekonomikoaren alde sozial, juridiko, tekniko eta finantzarioari eta kudeatzeko moduaren zehaztapenari buruzko memoriaren berri eman zen. Horrek sozietatearen estatutuen proiektua ere barne hartzen du.

Luze eztabaidatu zen, aldeek beren botoaren arrazoia azal zezaten.

Ogasun, Ondare eta Kontuen Informazio Batzorde Bereziak gaia bozkatu eta honakoa izan zen emaitza: aldeko botoak: EAJ-PNVko Iñaki Goikoetxea Gordo jauna, Batzorde honetako burua, EAJ-PNVko M^a Carmen Urbieto González andrea, Beatriz Resa Bardeci andrea eta Jon Loizaga Cayero jauna, eta EB-Berdeak-eko Daniel Herrera Torrecilla jauna. Abstentzioak: PSE-EEko Luis M^a Pérez Pérez jauna, Alfonso López Arevalillo jauna eta Juan Carlos Martínez Llamazares jauna, eta PPko Arturo Aldecoa Ruiz jauna. Horrenbestez aldeko irizpena eman zion honakoari:

1. Onetsi egingo da Pinosolo kiroldegia kudeatuko duen udal sozietate publikoa sortzeko egokitasun eta aukerari buruzko memoria.
2. Onetsi egingo dira LEIOA KIROLAK S.A.U. udal sozietate publikoa eraenduko duten estatutuak.
3. Onesteko erabaki hau jendaurrean azalduko da egutegiko 30 eguneko epean. Epe horretan alegazio edota oharra aurkeztu ahal izango dira, Toki Araubidearen arloan indarrean dauden legezko xedapenen testu bategina onetsi zuen apirilaren 18ko 781/1986 Legeintzazko Errege Dekretuaren 97. artikuluan azaldutakoaren arabera.

EZTABAIDA:

PPko Xabier Olabarrieta Arnaiz jaunak esandakoaren laburpena:

Orain dela gutxi gai horri buruzko alderen bat aztertu denean, bere udal taldea bozketan abstenitu egin dela esan du. Dena den, orain bideragarritasunaren azterketa ekonomikoa eta espedientean dauden txostenak sakonago aztertu dituzte eta, beraz, aldeko botoa emango diotela esan du. Eta zorionak eman ditu, uste duelako denbora luzeegia igaro dela, udalerrriaren beharrezanekin bat datozen kirol instalazioen hornidurarik izan gabe.

Beste aldetik, aurrekoaren kalterik gabe, proiektu horren kudeaketari eragiten dion edozeri adi egongo direla esan du, tasak egokiak direla zainduta, herritarren interesei erantzunda eta eman beharreko urratsak herritarren egoerara moldatuta.

PSE-EEko J. Alfonso López Arevalillo jaunak esandakoaren laburpena:

PPko bozeramaileak bere hitzaldian esandakoarekin bat datorrela adierazi du. Era berean, uste du, orain onetsi den erabakiaren bidez, *“proiektuaren lehenengo administrazio urratsa”* ematen ari dela. Hori babestu duten guztien laguntza eskertu du,



LEIOA AYUNTAMIENTO
ELIZATEKO DE LA ANTEIGLESIA
UDALA DE LEIOA

BIZKAIA

horien barnean gaur egun Udalean ordezkartzarik ez daukaten zenbait talde daudela. Halaber, poztu egin da, instalazioa Pinosolon kokatuko delako –bere garaian bere taldeak leku hori proposatu zuen- eta Sarrienako kirol instalazioak alferrikakoak izan zirela adierazi du.

Beraz, aldeko botoa emango diola adierazi du.

EB-Bko Daniel Herrera Torrecilla jaunak esandakoaren laburpena:

Udalaren osoko bilkuraren bilera horretan “*proiektu garrantzitsu horren irteerako pistola-tiroa*” gertatu dela esan du eta uste du espedientean bere bideragarritasun ekonomikoa justifikatu dela eta irtenbide juridiko egokia dakarten balizko kudeaketa moduen azterketa egin dela.

Amaitzeko, tarifak, bazkideen baldintzak, zerga ordenantza eta abar aurrerago aztertu beharko direla esan du.

EAJ-PNVko Jesús Bilbao Curiel jaunak esandakoaren laburpena:

Lehenik eta behin, proiektu hori gauzatzeko izapideak azkartzeko orduan, udal talde guztiek eman dituzten erraztasunak eta gogo ona eskertu ditu, eta, adibide gisa, Udalaren osoko bilkuraren aparteko bilera hau arazorik gabe deitu izana aipatu du.

Bere iritziz, egun funtzionatzen duen Sakonetako kiroldegia ez da nahikoa, gaur egun dagoen kirol zerbitzuen eskariari erantzuteko. Beste aldetik, uste du, Leioako ezaugarriak kontuan hartuta, Pinosolon eraikitzea aurreikusi denak beharizan zorrotzak gaindituko lituzkeela; nolana ere, kalitatezko zerbitzuak emango ditu, era askotakoak, zabalak... Dena den, baliteke horrek tarifak doitzea ekartzea, baina hori dagokionean aztertuko dute.

(Itzulpen zerbitzua garaiz etortzea eragotzi duten ezinbesteko arrazoiak direla-eta, EAJ-PNVko bozeramaileak euskaraz hitz egin ez duela agertu behar da).

OSOKO BILKURAREN ERABAKIA

Udalaren osoko bilkurak **aho batez erabaki du** aurretik idatzi den irizpena **onestea**. Horren ondorioz,

1. Onetsi egingo da Pinosolo kiroldegia kudeatuko duen udal sozietate publikoa sortzeko egokitasun eta aukerari buruzko memoria.
2. Onetsi egingo dira LEIOA KIROLAK S.A.U. udal sozietate publikoa eraenduko duten estatutuak, espedientean azaltzen diren bezala.
3. Onesteko erabaki hau jendaurrean azalduko da egutegiko 30 eguneko epean. Epe horretan alegazio edota oharra aurkeztu ahal izango dira, Toki Araubidearen arloan indarrean dauden legezko xedapenen testu bategina onetsi zuen apirilaren 18ko 781/1986 Legegintzazko Errege Dekretuaren 97. artikuluan azaldukoaren arabera.



**LEIOA AYUNTAMIENTO
ELIZATEKO DE LA ANTEIGLESIA
UDALA DE LEIOA**

BIZKAIA

Eta arratsaldeko zazpiak eta hogeit hamar minutu direnean, Alkatetza-Udalburutzak ekitaldia bukatutzat eman du, eta Idazkaritza honi dagokion akta egiteko agindu dio, adostutako eran onetsi dena. Hori guztia ziurtatu dut behin-behineko idazkaria naizen honek.

**O.E.
ALKATEA**

BEHIN-BEHINEKO IDAZKARIA,